

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

#### 220/2025 Foru Agindua, apirilaren 16koa. Behin betiko onespena ematea Lantarongo udalerrian "Acideka solar" autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa ezartzeko Plan Bereziaren espedienteari

Lehenengoa. 2023ko uztailaren 21ean, Lantarongo Udalak ingurumen txosten estrategikoaren eskaera aurkeztu zuen Arabako Foru Aldundiko Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Sailean, Leziñanan "Acideka Solar" instalazio fotovoltaikoa jartzeko lurzoru urbanizaezineko plan bereziaren ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedurari hasiera emateko. Plan berezia Neton Project 12 SLUk aurkeztu zuen, 2023ko ekainaren 8an. Horretarako, udalak plan bereziaren zirriborroa eta ingurumen dokumentu estrategikoa bidali zituen.

Bigarrena. Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko diputatuaren azaroaren 7ko 208/2023 Foru Aginduaren bidez (2023ko azaroaren 24ko ALHAO, 138. zk.), Leziñanako (Lantarongo udalerria) "Acideka Solar" industria autokontsumorako instalazio fotovoltaikoaren lurzoru urbanizaezineko plan bereziaren ingurumen txosten estrategikoa egin zen. "Ondorioak. Ingurumen baldintzak" izeneko 4. apartatuan ezarri dira planaren hasierako onespeneren hirigintza dokumentuan sartzeko egokitzat jotzen diren neurriak.

Hirugarrena. Lantarongo Udalak, alkatearen urtarrilaren 31ko 21/2024 Dekretuaren bidez, ebatzi zuen hasierako onspena ematea lurzoru urbanizaezineko plan bereziari, indarrean dagoen legeriarekin bat datorrelako eta Arabako Foru Aldundiak emandako ingurumen txosten estrategikoan ezarritako baldintzak jasotzen dituelako.

Ondoren, jendaurrean jartzeko hogeit hamar egun balioduneko epea irekitzea onetsi zen, interesdunek alegazioak egin ahal izateko, bai eta hasierako onspen hori jakinaraztea eta txostena egiteko eskatzea ere sektorean eskumenak dituzten administrazio publikoei. Iragarkia 2024ko otsailaren 12ko ALHAOn (18. zk.), egun bereko El Correo egunkarian eta udalaren egoitza elektronikoa ([www.aytolantaron.com](http://www.aytolantaron.com)) argitaratu zen.

Laugarrena. Udaleko idazkari kontuhartzaileak txostena egin zuen 2024ko ekainaren 7an. Txosten horretan jasotzen denez, nahitaezko txosten sektorialak eskatu dira, eta, gainera, hasierako onspeneren ebazpena jakinarazi zaie Leziñanako Administrazio Batzarrari eta lurzatiaren jabeari, eta hasieran onetsitako dokumentuaren eta udal arkitektoaren eta Ingurumeneko Udal Zerbitzuaren txosten teknikoaren kopia bidali zaie.

Era berean, txostenak jasotzen duenez, jendaurrean jartzeko izapidean, Arabako Nekazarien Elkarteak (UAGA) alegazioak egin ditu, eta, proiektuaren sustatzaileak baloratu ondoren, ezetsi egin dira. Alegazio horiei buruz iritzia eman du Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuak, ere, eta emaitza bera izan du; zerbitzu horren ustez, proiektuak sortutako inpaktua bateragarria da EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialean (LPS) ezarritakoarekin, eta erabilera berrirako sarbidea eta ebakuazio linearen zanga baimentzen ditu, zeinak Aguanal y Ontanillas landa bideari (035-171-2) eragiten baitio.

Bosgarrena. Udaleko idazkariak, jarraitzeko, jakinarazi du 2024ko ekainaren 6an Neton Project 12 SLU sustatzaileak plan bereziaren dokumentua aurkeztu zuela Lantarongo Udalean, egindako aldeko txosten sektorialen arabera eta bat etorritik ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatutik eratorritako ingurumen alderdiekin, Jasangarritasun, Nekazaritza eta Ingurumenaren Saileko diputatuaren azaroaren 7ko 208/2023 Foru Aginduan jasotzen diren proposatutako neurriak eta baldintzak txertatuta.

2024ko ekainaren 12an egindako osoko bilkuran, erabaki zen behin-behineko onespena ematea lurzoru urbanizaezineko plan bereziari, aldeko lau botorekin, aurkako bi botorekin eta abstentzio batekin; era berean, espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari bidaltzea erabaki zen, irizpena eman zezan.

Osoko bilkuraren erabaki hori Arabako Nekazarien Elkarteari (UAGA) ere jakinarazi zitzaion; izan ere, erabaki horretan jasotzen denez, jendaurrean jartzeko izapidea zela eta, elkarteak alegazioak egin zizkion planari, eta alegazio horien gaineko txostena eman dute bai plan bereziaren sustatzaileak bai Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuak, eta ezetsi egin dira.

Seigarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, Arabako Hirigintza Plangintzako Atalaren irailaren 26ko 4/2024 bilkuran, erabaki zuen espedientearen aldeko txostena ematea.

Zazpigarrena. 2025eko urtarrilaren 10ean, Lantarongo Udalak eskaera bat aurkeztu zuen Arabako Foru Aldundian, Neton Project 12 SLUk sustatutako "Acideka Solar" instalazio fotovoltaiakoaren lurzoru urbanizaezineko plan berezia behin betiko onesteko, soberakinak dituen autokontsumoaren eta transformazio zentroaren modalitatean.

Aurrekari horiei honako oinarri hauek aplikatu behar zaizkie:

Lehenengoa. Sustapen partikularreko plan bereziaren xedea da lurzoru urbanizaezinean 55.956,66 m<sup>2</sup>-ko azalera duen eremu baten antolamendu xehatua mugatzea eta ezartzea, Acideka taldeko Dekitra izeneko hurbileko enpresa batentzat autokontsumorako instalazio fotovoltaiako bat ezartzeko. Zehazki, planak 4 poligonoko 889 katastro lurzati osoa antolatzen du. Lurzati hori udalerrriaren hegoaldean dago, Lantarongo industrialdetik 200 metro iparraldera, gutxi gorabehera.

Aurreikusitako instalazioak 1.800 kW-ko potentzia instalatua izango du, eta erregistratutako bidetik sartuko da bertara. Bide hori mendebaldeko mugatik igarotzen da, eta energia elektrikoa hornituko dion enpresa dagoen industrialdera iristen da, A-2122 errepidea zeharkatu ondoren. Ebakuazio linea lurpean jartzea proposatzen da, eremuaren barruan dagoen transformazio zentrotik industria hartzailearen barne sareraino: bidearekin paraleloan doa, 4 poligonoko 891 lurzatiaren mendebaldeko muturra iparraldetik hegoaldera zeharkatuz, A-2122 errepidea zeharka gurutzatzen du eta enpresa dagoen lurzatiaraino iristen da, industrialdearen barruko bideetatik.

Instalazio horren helburua erregai fosiletatik datorren energia eskaria murriztea da, enpresa hartzailearen beharrak iturri berriztagarri batetik datorren energiarekin asetzea ahalbidetuko baitu.

Plan bereziak lau zonatan banatzen du eremua, eta haietako bakoitzak bere erabilera eta eraikuntza araubidea du: lehendik dauden eraikinen zona, sarbidea eta eguzki instalazio fotovoltaiakoaren zerbitzura dauden eraikinak, eguzki panel fotovoltaiakoen zona eta zona libre.

Bigarrena. Proiektuaren arabera instalazio fotovoltaiakoa hartuko duten lursailak lurzoru urbanizaezin sailkatuta daude, eta honela kalifikatuta, udalerriko indarreko arau subsidiarioen arabera: 2. zona, "Nekazaritza eta abeltzaintzako babes eremua substratu hauskorren gainean". Arau horien 201. artikulua honako hau xedatzen du:

"1. Zona horiek bokazioz landa zonak direla kontuan izanik, artikulua honek zona horietan baimendutako erabilerak eta jarduerak aipatzen ditu, erabilera eta jarduera horiek zona bakoitzeko babes helburuekin bateragarriak izan daitezzen bete beharko dituzten ezaugarriak eta baldintzak eta haien buruzko kontzeptuak azalduz. [...]."

Onura publikoko eta gizarte intereseko azpiegiturak: Lurzoru urbanizaezineko zona guztietan instala daitezke. Hala ere, ezin izango dira jarri 1. zonan, ez eta organo eskudunak instalazio horietarako baimena lortzeko izapidetze prozesuan egokitzen hartzen ez dituenak ere [...]."

Zehazki, “Nekazaritza eta abeltzaintzako babes eremua substratu hauskorren gainean” 2. zonarako, aipatutako artikulua jasotako eraikuntza erabilera eta jardura baimenduen artean daude onura publikokoak eta gizarte interesekoak diren instalazioak eta azpiegiturak, landa ingurunean kokatu behar direnak, egiten dituzten jarduerak egiten dituztenez, zientzia, topografia, geografia, irakaskuntza edo horrelako beste arrazoi batzuegatik lurriari lotetsirik egon behar dutelako nahitaez.

Bestalde, uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bidez behin betiko onetsitako EAeko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek (LAG), erabileren matrizean, xedatzen dute “B motako instalazio tekniko ez-linealak” —erabilera horretan energia berriztagarrien instalazioak sartzen dira, hala nola fotovoltaikoa eta antzekoak (2.c.4. Azpiegiturak)— erabilera onargarria direla nekazaritzako eta abeltzaintzako lurzoruen eta landazabalaren kategorian, eta Nekazaritza eta Basogintzaren Lurralde Plan Sektorialean xedatutakoari lotzen zaizkio. LPSak zehazten du instalazio horiek erabilera onargarria direla trantsizioko landa paisaia gisa kategorizatutako lurzoruan, betiere nekazaritzaren arloan eskumena duen organoaren txosten batek abalatzeko badu. Txosten horrek kontuan hartu beharko du nekazaritzako eta basogintzako jardueraren gaineko eragina, eta neurri zuzentzaileak sartu beharko ditu Nekazaritza arloko Afektazioaren Ebaluazio Protokoloaren (NAAEP) baldintzetan.

Horiek horrela, 2024ko urriaren 17an, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak, NAAEPren emaitza kontuan hartuta, jakinarazi zuen proiektu horrek sortutako eragina bateragarritzat jotzen dela, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSan ezarritakoarekin bat etorritik.

Hirugarrena. Lurzoruen eta Hiri Birgaitzearen Legearen testuategia onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 13.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde eta hirigintza antolamenduak urbanizazioaren bidez eraldatetik babestu duen eta landa egoeran dagoen lurzoruan, “salbuespen gisa eta lurralde eta hirigintza antolamendua- ren legerian aurreikusitako prozedura erabiliz eta baldintzak betez, zilegi izango da berriazko jardura eta erabilera batzuk legitimatzea, baldin eta interes publikoa edo soziala badute, landa antolamenduari eta garapenari ekarpenak egiten badizkiote edo landa ingurunean kokatu beharrekoak badira”.

Ildo beretik, ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatzen duenez, “lurzoru urbanizazinean ezingo dira gauzatu aplikatzeko den arloko legediak edo lurralde antolamenduak interes publikoa aitortzen dien zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berriaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru aldundiak ebazpen bidez izendatu behar baititu interes publikoko, hogeitaz jendaurrean jartzeko izapidea bete ondoren”.

2/2006 Legea garatzen duten Premiako Neurriek buruzko 105/2008 Dekretuaren 4. artikulua aplikatu behar da. Bertan, hau jasotzen da: “2. Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan adierazitako jardunak berriaz eta soilik honako honetara bideratuko dira: hirigintza-plangintzarekin bat etorritik, landa inguruaren ordenamendurako eta garapenerako lagungarriak izategatik edo aplikatu daitezkeen sektore-legediak edo lurralde-plangintzak interes publikokotzat deklaratu dituelako, landa inguruan kokatu behar diren zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak ezartzera. [...]”.

3. Aurreko paragrafoan adierazten diren eta, gainera, ingurumen-inpaktuaren banakako deklarazioa behar duten jardunak eta 5.000 metro karratu baino gehiagoko lurzorua eraginpean hartzen dituzten jardunak baimentzeko, gehigarri gisa, plan berezi bat idatzi eta onartu beharko da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 59.2.c.7 artikuluan adierazten denarekin bat etorritik. Plan hori behin betiko onartzeko ahalmena Foru Aldundiak baldin badu, interes publikoko delako adierazten duen deklarazioa inplizituztat hartuko da, betiere aurretiaz plana jendaurrean jakinarazi baldin bada”.

Laugarrena. Proiektuaren interes publikoari dagokionez, haren helburua aintzat hartu behar da: parke fotovoltaiko bat ezartzea da helburua, energia elektriko garbi eta berriztagarria ekoizteko.

Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legeak 2.2 artikuluan ezartzen duenez, "Energia elektronikoaren hornidura interes ekonomiko orokorreko zerbitzua da". Instalazioaren ezaugarri zehatzei dagokienez, energia berriztagarrien eta energia trantsizioaren araudia aplikatu behar da.

Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak energia hornikuntzak eta haren erabilera pertsonen bizitzarako duten berezko izaera jasotzen du, eta energia berriztagarriak azpimarratzen ditu. Legearen helburuen artean daude energia kontsumoa murriztea, energia jasangarritasuna bultzatu eta sustatzea eta ingurumena babestea energia berriztagarriko instalazioak ezarrita. Legearen 4. artikulua iturri berriztagarrietatik lortutako energiaren definizioa jasotzen du, eta iturri ez-fosiletatik eskuratutako energia gisa definitzen; halaber, berriaz aipatzen ditu energia eolikoa, hidraulikoa, geotermikoa, eguzki energia eta beste batzuk. Lege beraren 5. artikulua lege horren helburuak ezartzen ditu, eta b) apartatua honako hau jasotzen du: "energia berriztagarriak sustatzea eta ezartzea, erregai fosilekiko mendekotasuna gutxitzeko".

LAgen arabera, energia berriztagarriak gero eta gehiago txertatu behar dira gure lurraldearen eraikuntzan. Memorian, baliabideen kudeaketa jasangarriari buruzko 8. kapituluak honako hau zehazten du: Energia eraginkortasuna eta energia berriztagarriak 2030erako Euskadiko Energia Estrategiaren (3E-2030) bi ardatz nagusiak dira, eta ezinbesteko betekizunak dira lurralde iraunkortasuna, lehiakortasuna eta klima aldaketaren aurkako borroka bermatzeko. Lurralde estrategiaren energiaren alorrean beste zenbait erronkari ere heldu behar zaie, hala nola energia eraginkortasunaren eta efikaziaren igoera nabarmenari; deskarbonizazioari, energia berriztagarrien iturrien erabilera orokortuz; eta energia autosufizientziarantz aurrera egiteari.

Illo beretik, aplikazio arauetan, 16. artikulua, energiaren arloko jarraibideei buruzkoak, berriaz jasotzen du eraikin eta instalazioen eguzki aprobetxamenduen, aprobetxamendu eolikoen, biomasaren eta abarren bidezko autohornidura energetikoa bultzatzea, iturri berriztagarrietatik energia lortzeko soluzioak lehenetsiz.

Aurreko legediarekin bat etorritik, Landa Ingurunearen Garapenaren ekainaren 30eko 7/2022 Legeak, 6. artikuluan, landa inguruneko politika instituzionalen helburu sektorialak aipatzen ditu; E) apartatua landa nukleoetako eta landa entitateetako oinarriko azpiegituren arloko helburuak jaso dira, eta hauek aipatzen dira, besteak beste: "Energia berriztagarri eta jasangarriek lortutako azpiegituren garapena indartzea, [...] eta iturri berriztagarri eta jasangarrietatik sortutako energiaren autosorkuntza eta autokontsumoa erraztea, bai landa-guneetan, bai nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategietan".

Estatuan, Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren maiatzaren 20ko 7/2021 Legea lotuta dago EBren arlo horretako helburuekin eta Itun Berdearen hazkunde estrategiarekin; eta erabaki hau nabarmentzen du: "legeak ekintza politikoaren erdigunean kokatzen ditu klima-aldaketaren aurkako borroka eta trantsizio energetikoa, ekonomiaren eta gizartearen funtsezko sektore gisa etorkizuna eraikitzeko eta aukera sozioekonomiko berriak sortzeko. [...] legeak bermatu behar du Espainian berotegi-efektuko gasen isurien neutraltasuna eta sistema energetiko efiziente bat lortzen dela 2050. urtea baino lehen [...]".

Zehazki, 3. artikuluan, "Gutxieneko helburu nazional hauek ezartzen dira 2030erako, nazioartean onartutako konpromisoak betetzeko, autonomia-erkidegoen eskumenak hartatik eragotzi gabe:

a) 2030erako, Espainiako ekonomian, orokorrean hartuta, berotegi-efektuko gasen isuriak gutxienez ehuneko 23 murriztea, 1990. urtearekin alderatuta.

b) 2030erako, azken energia-kontsumoan jatorri berriztagarriko energien ehuneko 42ko sartze-kuota lortzea gutxienez.

c) 2030erako, sortutako energiaren ehuneko 74, gutxienez, jatorri berriztagarriko energietatik sortutakoa duen sistema elektrikoa izatea [...].

2. 2050. urtea baino lehen, eta, edonola ere, ahalik eta eperik laburrenean, Espainiak neutraltasun klimatikoa lortu beharko du [...]. Eta sistema elektrikoak jatorri berriztagarriko sortze iturriak baino ez ditu izango oinarri [...].”

Era berean, eguzki energia fotovoltaikoan oinarritutako energia berriztagarria sortzeko instalazioak aurreikusita daude Energia eta Klimaren 2021-2030eko Plan Nazional Integratuan, zeina Ministro Kontseiluaren 2021eko martxoaren 16ko erabakiaren bidez onetsi baitzen.

Aurretik azaldutakoa ikusita, Neton Project 12 SLU enpresak sustatutako proiektuaren interes publikoa justifikatzen da. Jardueraren izaera dela eta, justifikatuta dago kokaleku zehatz horretan jartzea, tokia bat datorrelako beharrezko azpiegituren berezko ezaugarriekin.

Bosgarrena. Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko diputatuaren azaroaren 7ko 208/2023 Foru Aginduaren bidez egindako ingurumen txosten estrategikoak (2023ko azaroaren 24ko ALHAO, 138. zk.) zenbait alderdi ezartzen zituen, eta haiek behar bezala jaso dira behin betiko onespina emateko aurkeztu den dokumentuan.

Seigarrena. Plan bereziaren hasierako onespeneren ondoren egindako jendaurrean jartzeko izapidean, UAGAk alegazioak aurkeztu zituen instalazioak, besteak beste, pertsonengan, lurzoruan edo paisaian izango duen eraginari buruz. Sustatzaileak eta Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuak txostena egin zuten haiei buruz, eta udalak, zegokion bilkuran, alegazio horiek ezesteko erabakia hartu zuen. Haiek aztertu ondoren, haiek ezesteko oinarri izan diren argudioak partekatzen dira. Ildo beretik, aipatzekoa da EAELABek aldeko txostena eman diola plan bereziari.

Horrenbestez, dagozkidan ahalmenak erabiliz, eta Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura 2023-2027 legegintzaldirako zehazten duen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onespina ematea Lantarongo udalerrian “Acideka solar” autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa ezartzeko Plan Bereziaren espedienteari.

Bigarrena. Aldaketa Arabako Hirigintza Plangintzako Administrazio Erregistroan sartzea.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea hirigintzako araudiarekin batera.

Laugarrena. Administrazio bidea agortzen duen ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena argitaratu edo jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 16a

*Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua*  
**LAURA PÉREZ BORINAGA**

Lantarongo udalerrian “Acideka Solar” autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa ezartzeko Plan Bereziaren espedientearen behin betiko onespina Arabako hirigintza plangintzaren administrazio erregistroan inskribatu da 2025eko apirilaren 16an, 2025/13 erregistro zenbakiarekin.



## HIRIGINTZAKO ARAUAK

### LEHENENGO TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

#### 1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua.

Hirigintza arau hauen xedea da arautzea plan berezi honen eremuaren barruan sartzen diren lursail, eraikin eta instalazioen erabilera. Plan berezia Arabako probintziako Lantarongo udalerrian, Leziñanako kontzejuan, ACIDEKA SOLAR autokontsumorako eguzki instalazio fotovoltaikoa garatzeko da.

#### 2. artikulua. Indarrean jartzea eta baldintzak.

1. Plan berezia indarrean jarriko da, plana behin betiko onesteko erabakia eta bere hirigintza arauak Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean, eta indarrean egongo da, harik eta haren zehaztapenak erabat edo zati batean aldatzen diren arte, legez ezarritako betekizunekin, edo erabat indargabetzen diren arte, halaxe ezartzen duen goragoko mailako plangintza tresna bat onetsiz gero.

2. Plan bereziko xedapenen bat baliogabetzeak, ezeztatzeak edo aldatzeak ez du gainerakoen baliozkotasunean eraginik izango, lotura edo menpekotasun inguruabarraren ondorioz baten bat aplikatu behar ez den kasuetan izan ezik.

#### 3. artikulua. Plan berezia osatzen duten dokumentuak eta haien arauzko irismena.

1. Plan berezia osatzen duten dokumentuak:

Plan berezi honek dokumentu hauek biltzen ditu:

0. DOKUMENTUA: DOKUMENTU BATEGINA LORTU ARTEKO ETA HURA BEHIN BETIKO ONESTEKO IZAPIDEEN AURREKARIAK ETA TXOSTEN TEKNIKOAK.

A DOKUMENTUA: INFORMAZIO ETA JUSTIFIKAZIO MEMORIA.

B DOKUMENTUA: HIRIGINTZAKO ARAUAK.

C DOKUMENTUA: GAUZATZEA ANTOLATZEKO ETA KUDEATZEKO JARRAIBIDEEN AZTERKETA.

D DOKUMENTUA: EKONOMIA ETA FINANTZA BIDERAGARRITASUNAREN AZTERLANA.

E DOKUMENTUA: GENERO ERAGINAREN EBALUAZIOA.

F DOKUMENTUA: HIZKUNTZA ERAGINAREN EBALUAZIOA.

G DOKUMENTUA: GAUZATZEAREN LABURPENA.

H DOKUMENTUA: INFORMAZIO ETA ANTOLAMENDU XEHATUAREN PLANOAK.

2. Dokumentuen izaera arauemailea:



Proiektuaren eduki arauemailea artikuluko honen 1. epigrafean adierazitako dokumentu guztiek definitzen badute ere, "B. HIRIGINTZAKO ARAUAK" eta "F. ANTOLAMENDU PLANOAK" dokumentuek dute berariaz izaera arauemaile eta hirigintzako esku hartzea arautzeko izaera hori, eta, beraz, esku hartzea haien zehaztapenetara egokitu beharko da nahitaez.

Gainerako dokumentuak azalpen, erreferentzia edo justifikazio izaerakoak dira, nagusiki. Beraz, aurretik aipatutakoekin alderatuta kontraesanik egonez gero, aurrekoek izango dute lehentasuna.

Hirigintza arau hauetan jasotzen ez diren izaera orokorreko kasuetan, Lantarongo Arau Subsidiarioen araudi orokorra aplikatuko da.

3. Dokumentuen arteko desadostasunak:

Desadostasunik antzemanaz gero eskala desberdinetan egindako izaera arauemaileko planoetako hirigintza zehaztapenen batean, eskala zehatzago batean idatzitako planoez ezarritakoa nagusituko da, salbu eta bat ez datorren alderdia plano horietako edukiaren akats material nabarmena bada.

Kontraesana badago araudiaren eta planoen artean, planoetan ezarritakoa gailenduko da, salbu eta bat ez etortzea plano horietako edukiaren akats material nabarmenaren ondorioa bada.

## **BIGARREN TITULUA: HIRIGINTZA ARAUBIDEA**

### **1. KAPITULUA. LURZORUAREN KALIFIKAZIO XEHATUAREN ARAUBIDEA**

#### **4. artikulua. Kalifikazio araubide aplikagarriaren definizioa.**

Plan berezi honen eremua dokumentu honen "O.1. Zonakatze xehatua" planoan jasotako kalifikazio araubidearen mende dago.

#### **5. artikulua. Zonakatze kodea.**

Plan bereziaren eremuaren zonakatze xehatua bat dator "O.1 Zonakatze xehatua" planoan islatutako zona banaketarekin. Han, erabilera xehatuko zona hauek ezartzen dira:

- Lehendik zeuden eraikinen zona.
- Eguzki instalazio fotovoltaiakoaren zerbitzurako sarbide eremua eta eraikinak.
- Eguzki panel fotovoltaiakoaren zona.
- Zona librea.

#### **6. artikulua. Lehendik zeuden eraikinen zona.**

1. Definizioa:

Eremuan lehendik dagoen eraikin bakarra dagoen zona da, eta, AFaren katastroaren arabera, erabilera hau du: "eraikin txiki osagarria". "El Aguanal y de Ontanillas" landa bidetik eraikinerako joateko zona barnean hartzen da.



2. Jabaria: pribatua.

3. Erabilera araubidea:

a. Erabilera nagusiak:

i. Lehen sektoreko baliabideak eta industria baliabideak ekoizteko ustategiei lotutako biltegiak.

b. Erabilera bateragarriak:

i. Sarbidea.

ii. Berdeguneak.

iii. Aparkalekua.

iv. Nekazaritzakoak.

v. Abeltzaintzakoak.

vi. Basogintzakoak.

vii. Lurpeko linea elektrikoak.

c. Debekatutako erabilerak: Gainerako erabilerak.

4. Eraikuntza araubidea:

a. Eraikinak:

Dauden eraikinak gaur egun dituzten parametroekin finkatzen dira.

**7. artikulua. Eguzki instalazio fotovoltaikoaren zerbitzurako sarbide eremua eta eraikinak.**

1. Definizioa:

Eguzki instalazio fotovoltaikora sartzeko eremua da, eta eguzki instalazio fotovoltaikoari lotutako eraikinak bertan kokatzea aurreikusten da.

2. Jabaria: pribatua.

3. Erabilera araubidea:

a. Erabilera nagusia:

i. Sarbidea.

ii. Kontrol zentroa.

iii. Transformazio zentroa.

iv. Lurpeko linea elektrikoak.

b. Erabilera bateragarriak:

i. Aparkalekua.



ii. Berdeguneak.

iii. Eguzki instalazioaren funtzionamenduari lotutako beste eraikuntza batzuk.

c. Debekatutako erabilerak: Gainerako erabilerak.

4. Eraikuntza araubidea:

a. Eraikinak:

Baimenduta dago etxolak edo eguzki instalazio fotovoltaikoari lotutako beste eraikin batzuk eraikitzea, hala nola kontrol zentroa, transformazio zentroak eta/edo beste instalazio elektriko batzuk; nolahi ere, "O.2. Antolamendu orokorra. Lerrokadurak, sestrak eta kotak" planoan ezarritako lerrokadurak gorde beharko dira.

Hirigintza parametro hauek ezartzen dira kontrol zentroa, transformazio zentroa edo beste instalazio elektrikoren bat hartzen duten eraikinetarako:

- Gehieneko eraikigarritasuna: 200 m<sup>2</sup> (s).
- Gehieneko okupazioa: 200 m<sup>2</sup> (z).
- Gehieneko garaiera: 4,00 m.
- Solairu kopurua: 1.
- Gutxieneko tartea mugetara: 10 m.

#### **8. artikulua. Eguzki panel fotovoltaikoen zona.**

1. Definizioa:

Eguzki panel fotovoltaikoen egiturak eta inbertsoreak jar daitezkeen eremua.

2. Jabaria: pribatua.

3. Erabilera araubidea:

a. Erabilera nagusia: Zerbitzu azpiegiturak, eguzki parke fotovoltaikoaren modalitatean.

b. Erabilera bateragarriak:

- i. Espazio libreak eta berdeguneak.
- ii. Lurpeko linea elektrikoak.

c. Debekatutako erabilerak: Gainerako erabilerak

4. Eraikuntza araubidea:

Oro har, ez da eraikuntza baimentzen.

Honako hirigintza parametro hauek ezartzen dira eguzki paneletarako eta inbertsoreetarako:

- Mugetarako tartea: 8 m.



- "O.1. Zonakatze xehatua" planoak instalazioaren gehieneko inguratzailea ezartzen du, eguzki panel fotovoltaikoak eta inbertsoreak bertan jartzeko.
- Eguzki panel fotovoltaikoen gehieneko okupazioa: % 70, gutxi gorabehera (bat dator eguzki panelek hartzen duten gehieneko inguratzailearen azalerarekin).
- Instalaturako panelen gehieneko garaiera: 3,00 m.

#### **9. artikulua. Zona libre.**

##### 1. Definizioa:

Instalazioaren ertzeko eremuak dira, perimetro hesiaren mugaren eta lurzatiaren mugaren artean daudenak, eta berdegune izango direnak.

##### 2. Jabaria: pribatua.

##### 3. Erabilera araubidea:

- a. Erabilera nagusia: Berdegunea eta pasabidea instalazioa mantentzeko.
- b. Erabilera bateragarriak: Lurpeko linea elektrikoak.
- c. Debekatutako erabilerak: Gainerako erabilerak.

##### 4. Eraikuntza araubidea:

Zona honetan ezin da plaka fotovoltaikorik eraiki edo jarri.

Hesia jarri ahal izango da, "O.1. Zonakatze xehatua" planoan ezarritako instalazioaren perimetro itxituraren gehieneko muga errespetatuz.

## **2. KAPITULUA. GAUZATZE ARAUBIDEA**

#### **10. artikulua. Interes publikoaren adierazpena.**

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 4. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, "Acideka Solar" autokontsumorako eguzki instalazio fotovoltaikoaren interes publikoaren adierazpena egin beharko da Arabako Foru Aldundiaren ebazpen baten bidez. Arabako Foru Aldundiari dagokio Plan Berezia behin betiko onestea; hortaz, inplizituzat joko da interes publikoaren adierazpen zehatza.

#### **11. artikulua. Plan berezia gauzatzeko araubidea**

Plan bereziak mugatzen duen eremuan proiektaturako antolamendua zuzenean gauzatu da, dagokion obra lizentzia lortu ondoren.

#### **12. artikulua. Antolamendutik kanpoko eraikinak eta instalazioak.**

Antolamenduz kanpokotzat jotzen da plan berezi honetako zehaztapenekin bat ez datorren edozein eraikuntza, instalazio edo erabilera.

#### **13. artikulua. Partzelazioa.**



1. Hirigintza partzelazioak edo beste edozein motatakoak debekatuta daude, eta aplikagarri den legeria orokorrean ezarritako irizpideen arabera egiten diren lurzati nagusien banaketak eta zatiketak baino ez dira onartuko.

2. EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren (177/2014 Dekretua) 11. artikulua arabera, ez da baimenduko eragindako finkak banantzea, baldin banantze horretatik ateratzen badira gutxieneko laborantza unitatea baino azalera txikiagoa duten lurzati edo finkak, salbu eta bermatzen bada lehendik dauden beste nekazaritza ustiategi batzuei atxikiko zaizkiela.

## **HIRUGARREN TITULUA: INSTALAZIOARI ETA URBANIZAZIOARI BURUZKO BERARIAZKO ARAUAK**

### **1. KAPITULUA. EGUZKI INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOAREN BALDINTZAK**

#### **14. artikulua. Instalazioen baldintzak.**

"O.2. Antolamendu orokorra. Lerrokadurak, sestrak eta kotak" planoan hiru muga mota ezarri dira:

- Eguzki panel fotovoltaikoen eta inbertsoreen eremuko gehieneko inguratzailea:  
Eguzki panel fotovoltaikoen egiturak eta inbertsoreak jar daitezke eremu horretan.
- Sarbidearen eta eraikinen eremuko gehieneko inguratzailea:  
Inguratzaile horren barruan jarriko dira instalaziorako sarbidea eta eraikinak: kontrol zentroa, transformazio zentroak eta/edo babes eta neurketa zentroa.
- Perimetro itxituraren muga:  
Eremuaren mugen barruan, instalazioaren perimetrorako itxitura edo hesia jar daitekeen gehieneko muga da. Ez du zehazten hesiaren azken posizioa; atzeraeman daiteke marraztutako gehieneko mugatik.

### **2. KAPITULUA. URBANIZAZIO BALDINTZAK ETA ZERBITZU AZPIEGITURAK.**

#### **15. artikulua. Lurrak mugitzea.**

Parke fotovoltaikoaren eraikuntza proiektuan ezarriko dira lursailaren behin betiko sestrak, lur mugimendu handirik ez egiteko eta oraingo topografiaren ezaugarriei eusteko irizpide orokorraren barruan beti.

#### **16. artikulua. Sartzeko baldintzak.**

Eguzki instalazio fotovoltaikoak, ahal dela, sarbide bakarra izango du landa lurzatiara sartzeko bide asfaltatu gabetik.

Instalazio fotovoltaikorako sarbideak eta haren ebakuzio lerroa egiteko, Lantarongo udalerrian (Araba) 2,09 MWp-ko "Acideka Solar" autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa egiteko baimen partzialari buruzko Bide Azpiegituren zuzendariaren uztailaren 17ko 3236/2023 Ebazpenean ezarritako baldintzak bete beharko dira.



Erregistratutako landa bideetan eragina izanez gero, txostena eskatu behar zaio Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuari. Era berean, identifikatutako ureztatze sareetan eragina izanez gero, Osingaingo Ureztatzaileen Elkarteari jakinarazi beharko zaio, eta, nolanañi ere, sarean hausturak eta ur mozketak saihestuko dira.

#### **17. artikulua. Eguzki instalazio fotovoltaikoaren barne urbanizazioa.**

Parke fotovoltaikoaren eraikuntza proiektuak lurzatiaren barne urbanizazioaren ezaugarriak zehaztuko ditu, eta ziurtatuko du haiek koherenteak izango direla aurreikusitako erabilerekin, eta lur mugimendurik ez egiteko eta iragazgaiztutako azalerarik ez sortzeko irizpide orokorra errespetatuko dute.

#### **18. artikulua. Eguzki instalazio fotovoltaikoaren itxitura.**

Instalazioaren perimetroko itxitura jartzea, segurtasun kontuak tarteko, funtsezko betekizuna da eguzki energia ekoizteko instalazio mota hauetan. Instalazio fotovoltaikoa eraikitzeko proiektuak xehetasunez zehaztuko du basa faunaren gaineko inpaktuak minimizatzeke eta haren zirkulazio askea bermatzeko diseinatuko den perimetro hesia, EAeko lurralde antolamenduaren gidalerroek ezartzen duten bezala.

Hesiak honako ezaugarri hauek bete beharko ditu, fauna aske ibil dadin bermatzeko:

- Ehiza edo abeltzaintza hesiak, ahal dela bi metro baino baxuagoak.
- Tamaina txiki eta ertaineko faunarekiko iragazkorra den diseinua, hesi efektua saihestu eta ingurunean integratzen dena.
- Gehienez ere 20 cm-ko diametroa duten eta aitzurrarekin lur berean induskatuta dauden "katazulo" motako pasabideak gaitzea.
- Hesia hegaztien talken aurkako gailuarekin seinaleztatzea.

"O.2. Antolamendu orokorra. Lerrokadurak, sestrak eta kotak" planoan eguzki instalazioaren itxituraren gehieneko lerrokadura islatu da.

### **LAUGARREN TITULUA: HIRIGINTZA ANTOLAMENDUARI GAINERATUTAKO BALDINTZAK.**

#### **19. artikulua. Ingurumen baldintzak.**

"O.2. Antolamendu orokorra. Lerrokadurak, sestrak eta kotak" planoan eguzki instalazio fotovoltaikoaren itxituraren gehieneko lerrokadura islatu da.

#### **20. artikulua. Zortasun aeronautikoak.**

Plan bereziaren jarduketa eremu osoa Gasteizko aireportuari dagozkion zortasun aeronautikoen zonen barruan dago.

Eremu horri eragiten dioten Gasteizko aireportuko zortasun aeronautikoen azalera mugatzaileen maila lerroek, zeinak "I.4.a. Baldintza sektorialak: arrisku kimikoaren eta zortasun aeronautikoen eragin eremuak" planoan grafiatuta baitaude, proposatutako eraikuntza, instalazio edo landaketa batek edo objektu finko edo mugikorrek (zutoinak, antenak, aerosorgailuak palak barne, kartelak, etab.) gainditu behar ez dituzten itsas mailarekiko garaierak zehazten dituzte, baita bide azpiegituren galiboa ere.



Edozein eraikuntza, instalazio edo landaketa zortasun aeronautikoen eraginpeko zona batean egiten bada, edo inguruko lursailaren edo uraren mailatik 100 metro edo gehiagoko garaiera badu, Aire Segurtasunaren Estatu Agentziaren (AESA) edo Defentsa Ministerioko organo eskudunaren aldez aurreko aldeko erabakia beharko da, kasuan kasuko eskumenen esparruan, Zortasun Aeronautikoei buruzko 369/2023 Errege Dekretuaren oraingo idazketan 31. eta 33. artikuluetan eta 15. artikuluan, hurrenez hurren, xedatutakoaren arabera.

#### **21. artikulua. Ingurumen neuri prebentziozkoak eta zuzentzaileak.**

Planaren zehaztapenak gauzatzean, kontuan hartu behar dira ingurumen dokumentu estrategikoaren 9. eta 10. kapituluetan jasotako neurriak, bai eta ingurumen txosten estrategikoan ezarritako neurri gehigarriak ere, plan berezi honen memoriaren A.I.5.1 apartatuan jasotakoak.